

UDALBATZA OSOA.

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2016ko otsailaren 10a, asteazkena.

2016ko martxoaren 9an akta onesteko bilkuran egindako oharra biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (Eh Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE). Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuraren buru.

Bertaratu ez diren zinegotziak: bat ere ez.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde aurretik eta arauzko publizitatearekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2016ko urtarrilaren 20an eginiko ohiko bilkurako akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.**
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea.**
 - 5.1. Udalerriko eremu bat "Euskadin berria" izendatzeko akordioa.
6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua eta Hirigintza Batzordea.**
 - 6.1. Kirol-guneari buruzko kirol-erabakia, estalitako igerilekuaren ontzia.
 - 6.2. Nagose Hoteles SL enpresaren eskaera, hotela eraikitze lursaila besterentzeko kontratuan karga errealak salbuesteko.
 - 6.3. Udalbatzako kide bati lanaldi partzialeko erregimena aplikatzea.Azken puntua. Galderak eta eskaerak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira.

1. Onestea 2016ko urtarrilaren 20an eginiko ohiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) 2016ko urtarrilaren 20an eginiko bilkurako akta onestea.

Aldeko botoak: 11(hamaika); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki, aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2016ko 14/16tik 28/16ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

- 3. Kultura, Turismo, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.**
- 4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.**
- 5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea.**

5.1. Udalerriko eremu bat "Euskadin berria" izendatzeko akordioa.

Bildu taldeak aurkeztutako proposamenaren berri eman da.

Villanueva Gutiérrez jn.: euskaraz hitz egiten hasi da. Bildu taldearen proposamena aurkeztu du Plaza Nagusiko kioskoa Euskaldun Berria kioskoa izendatzeko, inguruko euskaldun berriak, euskara, euskaltegia eta ikastola omentzeko; izan ere, inguru honetan gure hizkuntza hitz egiten jarraitzeko lan handia egin dute.

Gainerako taldeak proposamenaren alde agertu dira.

Hau erabaki da:

- 1) Plaza Nagusiko kioskoa Euskaldun Berria kioskoa izendatzea, inguruko euskaldun berriak, euskara, euskaltegia eta ikastola omentzeko; izan ere, inguru honetan gure hizkuntza hitz egiten jarraitzeko lan handia egin dute.

Aldeko botoak: 11(hamaika); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

6 Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua eta Hirigintza Batzordea.

6.1 Kirol-guneari buruzko kirol-erabakia, estalitako igerilekuaren ontzia.

Gamarra jn.: Sentitzen dut horrela esatea, erabakiak bizilagun batzuk kaltetzen dituelako, baina zerbitzu hau eskaintzen jarraitzeak beste zerbitzu batzuk betetzea baldintzatu dezake. Gogoeta zera da: obra bat egiteko asmoa izaterakoan, lehenengo pentsatzea, eta obra bat ez egitea egiteagatik, domina bat jartzeko.

Villanueva Gutiérrez jn.: EH Bildu Oion taldeak uste du zerbitzuak defizitarioak direla. Hala ere, gure erabakia zera da: ezin dugula defizit hori jasan erabiltzaileei dagokienez. Ontzia birmoldatzeari esker, espazio hori erabilera anitzeko areto bihurtu daiteke, eta une honetan gehiago eskatzen da ekipamendu hori. Egoera honetan oso erraza izango litzateke albo batean geratzea eta abstenitzea, baina hori ez da politika ulertzeko dugun modua. Ontzia birmoldatzeari alde gaude.

Hervías jn.: Zerbitzu mota honetan gizarte-errentagarritasuna espero dugu, ez soilik errentagarritasun ekonomikoa. Erabaki hori ez dator bat urriko saioan adostutakoarekin. Ez dakigu birmoldaketa zer-nola gauzatu den beste erabilera batzuetarako; ez dago erabaki hori bermatzen duen txosten teknikorik. Uste dugu instalazioa gutxi sustatu dela 1.go legegintzaldian. Ez dakigu zein den benetako erabilera-eskaera. Hartu nahi den erabaki hori kontraesanean dago estalitako igerilekuari buruzko aurrekontuan planteatu den proposamenarekin. Aurka bozkatuko dugula iragartzen dut, eta zerbitzu horretarako irtenbideak eskatzen ditugu.

Aurrekariak:

1. Igerileku estaliaren zerbitzua berrekiteko aukera aztertzea; honako hau ekarri du:
 - a. Kontsulta-lanak eta beste zentro batzuk bisitatzea.
 - b. 2015eko gastuen kalkulua (baitan daude hauek: energia elektrikoa, gasa, ur-kontsumoa...).
 - c. Zerbitzua kudeatzeko kontratuaren ebaluazioa (sarbide-kontrola eta kutxatilatzea, sorospena, garbiketa- eta desinfekzio-produktuak...).
 - d. Oionen erroldatutako urteko erabiltzaile abonatuaren zerrenda.
2. Udal-arkitektoaren txostena, irekierarako ezinbesteko gastuei buruzkoa.
3. Osasun Sailaren txostena, 2015eko ekainaren 8koa, estalitako igerilekuan gauzatu beharreko lanei buruzkoa, bainu-denboraldiari begira berriro ireki ahal izateko.
4. Iragarki-oholean eta Udalaren web orrian jartzearen bidez jendaurrean jarri diren datuen zerrenda.
5. Kiroldegi-guneko (Batzar Nagusiak kalea) kanpoko igerilekuko zerbitzuak eskaintzeko espedientea sustatzeko premia.

Hau erabaki da:

- 1) Estalitako igerilekuaren ontzia erabilera publikorako berriz irekitzeko ezintasuna adieraztea; hortaz, ontziaren erabilera birmoldatuko da.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 4 (lau): Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP) eta Diana Rubio Lafuente (PP).

6.2. Nagose Hoteles SL enpresaren eskaera, hotela eraikitzeako lursaila besterentzeko kontratuan karga errealak salbuesteko.

Alkate jn.: Gaurko egunez, ez dago idatzita txostena. Dokumentu hori abokatu bati eskatu zaio, Nagose enpresaren eskaerari buruz aholkatzeko, Udalak ebazpen- eta Jabetza Erregistroan bertan behera uztea eskatzeko debeku-baldintzari uko egitea bidezkoa izateko. Hori dela eta, gai hau aztergaien zerrendatik kentzeko proposatzen dut.

Gamarra jn.: Zein da berandutzearen arrazoia?

Alkate jn.: Gai konplexua da eta denbora behar du... Gobernu-talde honen asmoa da inbertsioa osatu ahal izatea, baina legea betetzea.

Gamarra jn.: Interesgarria litzateke enpleguagatik eta beste alderdi batzuegatik hotel bat izatea.

Alkatearen proposamena:

- 1) Gaia aztergaien zerrendatik kentzea: Nagose Hoteles SL enpresaren eskaera, hotela eraikitzeako lursaila besterentzeko kontratuan karga errealak salbuesteko, eskatutako txostena espedienteari gehitu arte.

Aldeko botoak: 11(hamaika); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

6.3. Udalbatzako kide bati lanaldi partzialeko erregimena aplikatzea.

Gamarra jn.: Uste dut Oion bezalako herriak arduraldia duen alkate bat merezi duela. Espero dut arduraldiak erantzukizuna izatea bizilagunak informatzeko eta kudeatzeko gaitan.

Villanueva Gutiérrez jn.: Aurrekontu-eztabaidan egin genuen gure adierazpena: hurrengo hauteskunde-kanpainetan konpromiso moral bat egotea nahi nuke, eta hautagaiak aldeztu aurretik hitz egitea gai horri buruz. Niri dagokidanez, hala egingo dut.

Hervías jn.: Aurrekontu-eztabaidan ulertu genuen pertsona hori alkatea izango zela, eta ez liratekeela akordio gehiago behar izango... Aurkako botoa emango dugula iragarri nahi du, alkateentzako soldatetarako garaia ez delako...

Aurrekariak

1. Araudi-erregulazioa: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 75. artikulua.
 - a. 2016 ekitaldirako ohiko aurrekontua orokorra betetzeko udal-araua. Arduraldi partzialeko edo eskusiboko karguak dituzten Udalbatzako kideen ordainsariak; kasu horietan, alta emango zaie Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, eta Udalbatzak dagokion enpresa-kuotak ordainduko ditu. Hurrengo puntuetan adierazitakoak izango dira, eta aldeztu aurretik aurrekontu-esleipena egonez gero soilik aplikatuko dira.
 - b. Arduraldi partzialeko erregimena duen Udalbatzako kideak ezingo du kalte-ordainik jaso osoko bilkuretar, Gobernu Batzarrera eta informazio-batzordeetara joateagatik. Aldiz, eskubidea izango du kalte-ordainak jasotzeko bere funtzioak gauzatzeak eragindako gastuengatik (bidaien, joan-etorrien eta mantenuaren arloko gastuak); betiere, eraginkorrak badira, benetan gertatu badira, eta dokumentu bidez justifikatuta badaude.
 - c. Arduraldi partzialeko erregimena duen Udalbatzako kideari alta emango zaio Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, eta Udalbatzak ordainduko ditu dagozkion enpresa-kuotak. Hori guztia 7/85 Legearen 75. artikuluan aurreikusitako edukiaren eta irismenarekin, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idatzian.
 - d. Ordainketa horiek jasotzeko gutxieneko arduraldi-erregimena astean 30 ordukoa izango da. Aurreikusitako urteko ordainketa gordina 31.540 eurokoa izango da, 14 hilerokotan banatuta. Arduraldi partziala duen Udalbatzako kidearengatik ordaindu beharreko Gizarte Segurantzako kuota 11.815 eurokoa da.
 - e. Arduraldi osoko edo partzialeko erregimena aplikatzea jendaurrean jarriko da iragarki bat txeratuz Udalaren iragarki-oholean, web orrian, ALHAOn eta probintzia-mailan gehien saltzen den egunkarian.
2. Liberatzea proposatzen den Udalbatzako kideak ohiko lanbidea garatzeko ezintasun iraunkorragatik pentsioa kobratzen du, eta hori bateragarria da arduraldi partzialeko erregimeneko ordainketarekin.

Hau erabaki da:

- 1) Udalbatzako kide den Eduardo Terroba Cabezón alkateari arduraldi partzialeko erregimena aplikatzea, eta, beraz, udal-kargu publikoetarako bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudiak eragingo dio.
- 2) Arduraldi partzialeko erregimena duen Udalbatzako kideak ezingo du kalte-ordainik jaso osoko bilkuretar, Gobernu Batzarrera eta informazio-batzordeetara joateagatik. Aldiz, eskubidea izango du kalte-ordainak jasotzeko bere funtzioak gauzatzeak eragindako gastuengatik (bidaien, joan-etorrien eta mantenuaren arloko gastuak); betiere, eraginkorrak badira, benetan gertatu badira, eta dokumentu bidez justifikatuta badaude.

- 3) Arduraldi partzialeko erregimena duen Udalbatzako kideari alta emango zaio Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, eta Udalbatzak ordainduko ditu dagozkion enpresa-kuotak. Hori guztia 7/85 Legearen 75. artikuluan aurreikusitako edukiaren eta irismenarekin, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idatzian.
- 4) Ordainketa horiek jasotzeko gutxieneko arduraldi-erregimena astean 30 ordukoa izango da.
- 5) Hileko ordainketa baliokidea ezarriko zaio arduraldi partzialeko erregimen dagoen Udalbatzako kideari.
- 6) Jendaurrean jartzea iragarki bat txeratuz Udalaren iragarki-oholean, ALHAOn eta probintzia-mailan gehien saltzen den egunkarian.
- 7) Akordio honi eraginkortasuna ematea erabakia hartu den egunaren biharamunetik aurrera; inola ere ez du atzeraeraginezkoa izango, eta Udalbatzaren agintaldi hau amaitu arte izango da indarrean. Kalte-ordainen erregimen hau aldatu egin ahal izango da Udalbatza ados jarrita.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 4 (lau): Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP) eta Diana Rubio Lafuente (PP).

Azken puntua. Galderak eta eskaerak.

Gamarra jn.: Plaza Nagusiko farola batek ez du argirik.

Villanueva Gutiérrez jn.: Udalburuaren adierazpenei esker jakin dugu Arabako Errioxako Kuadrilla eskualdean zenbait zabortege instalatzeko aukera aztertzen ari dela orain. Zer esan diezaguke alkateak horri buruz?

Alkate jn.: Itxura denez, bideragarritasun-azterketa bat dago eta Foru Aldundiak uste du diru asko inbertitu behar dela funtziona dezaten. Edozein enpresak kontrolatuta izan behar ditu bere hondakinak. Parquesolen zenbait enpresak hiri-hondakin solidoetarako edukiontziak erabiltzen dituzte industria-isuriak egiteko.

Proiektua 2001ean jarri zen abian, baina gaur egun geldituta dago oraindik, milioi bat euro baino gehiago xahutu ondoren.

Villanueva Gutiérrez jn.: EH Bildu taldeak irtenbide bideragarri bat eskatu du Oionen eraikuntzako hondakinen fabrikarako. 2005ean hasi ziren hondakinen fabrika eraikitzen eta 2008ko udazkenean martxan egon behar zukeen. Bost urte geroago, 2013an, Foru Gobernuak beste 60.000 euro inbertitzea erabaki zuen, inpermeabilizazio-arazoak konpontze aldera. Proiektu honen kudeaketari buruzko zalantza asko daude 2005ean hasi zenetik. Hasieratik, proiektu honen kudeaketa tamalgarria da. Horregatik eskatzen dizut gai horri buruz hartzen diren erabaki guztien berri emateko.

Hervías jn.: Galdera bat: alkatea abstenitu egin behar ote zen arduraldi partzialeko erregimena aplikatzeari buruzko akordioan?

Villanueva jn.: Hervías jaunak urriko akordioa ez betetzeari buruz hitz egiten du, eta ez du ezer gogoratzen. Eta sareko informazioari buruzko ez-betetzeari eta Garoñako mozioari buruzko ez-betetzeari buruz.

Hervías jn.: Akordioak ez betetzeko, gobernatu egin behar da.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 20:45ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2016ko otsailaren 20an

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE:

El acta se redacta en el idioma en el que se desarrolla la sesión, castellano y se traduce al euskera por Euskaalgintza Bulegoa S.L.